

JAUNAREN BATEOA UZ01-B

Senideok: Jaunaren Bateoa ospatzean, konturatu gaitezkan gure sinismenarentzat zelango garrantzia daukan gertaera honek. Lau ebanjelariak aitatzan badabe, lehenengo kristinauentzat garrantzi handikoa zalako izango da. Gertaera horretan sartzen bagara, Jesus ezagunagoa egingo jaku; eta merezi dau Jesus ezagutzeak sinismena sendotzeko.

Lehenengo irakurgaietan, profetearen ahotik, ez gaitezala alperreko gauzen atzetik ibili esan jaku; jo daigula Jainkoagana, berak elikatuko gaitula-ta.

Bigarren irakurgaietan, Joaneke Jesus jarri deusku Jainkoaganako bide zuzen lez. Nahi ez badogu alperreko gauzetan ibili, goazen Jesus ezagutzera: berak erakutsiko deusku sakontasunez bizi izaten, gure bizitza "beteten".

Lehenengo ta behin, Jesusen gizatasuna onartu behar dogu. Hortixik ulertuko dogu Jesus zergaitik dabilan bila, eta zer aurkitzen dauan Bateatzaileagan. Harrigarria badirudi ere, ehundako urtean egon zan Israelgo herria Profeta barik, Jainkoaren hitzik entzun barik. Zeruak itxita egozan. Bateatzailea agertu zan Jainkoagandiko mezuagaz. Jesusek bat egiten dau haregaz, harengan zeozer aurkitu ebalako. Eta zerua zabaldu egin zala dinosku ebanjelariak. Jazoera hau, asko eta askorentzat, Jainkoazale diranentzat, garrantzi handikoa da, eta pozgarria.

Asko dira bizi izateko Jainkoaren beharrik ez daukenak. Nabarmen dogu hau egunotan. baina asko gara baita Jainkoaren beharra daukagunak. Eta haregazko hartu-emonak zuzenak eta ziurrak doguzala jakiteak (hau Jesusi esker) poztu egiten gaitu, ziurtasuna emoten deusku eta norabidea ezarten dau gure bizitzan.

Gure herriak bizi dauan zatiketa giroan, sinisgabetasunean, pandemiaren bildurrean eta beste arazo batzuen artean, merezi dau sinistun izateak? Merezi dau uste on osoa (konfiantzea) Jainkoagan jarteak?

Nik baietz esango neuke. Jainkoaganako gure ustea Jesusena langoa izan, merezi dau sinistun izateak? Merezi dau uste on osoa (konfiantzea) Jainkoagan jarteak?

Nik baietz esango neuke. Jainkoaganako gure ustea Jesusena langoa izan ezker. Harena sinismen sendoa zan; ez zan gelditzen Jainkoari laguntza eskatze hutsean; Jainkoaren esanetara jartean zan, bere bizitza besteen zerbitzuan eskeiniz. Aldea makala! Bide horretatik bai izan gein-tekezala parkatzaile, bake-egile, alkarrizketaren bultzatzaile, behar-tsuekaz solidario, izadia errespetatzen dakianak, eta abar.

Jesusengan ikusten dogu sinismena gauza serioa dala: goitik behera hartzen dauala. Barruan daroagun Jainkotasuna, Jesusek Joanen bateoan aurkitu eban lez aurkitu geike geuk ere, geu ere Jainkoaren seme-alaba gara-ta.